

# MANEX ERDOZAINTZI-ETXART



Ezkerrean John Vaughn eta Eskuinean Manex Erdozaintzi

## "Nor naizen..." Manex Erdozaintzi-Etxart

*Udako Euskal Unibertsitate batean, bere buruaz egin aurkezpenean, Manex Erdozaintzi-Etxartek bere herritasuna ohizko gozotasunarekin eta bere kontzientziaren iturriekin agertu zuen.*

**N**i Nafarroa Beherekoa naiz, Oztibarre eskualdekoa, Zuberoa aldera. Nere sort-herria deitzen da Ibarla. Gaurregun ehun bat biztanle ez duen herri ttipi honetan iragan dut nere haur denbora, orduko Ipar Euskal Herriko baserri mugetan eta giroan.

Nere etxeokak eta herritarrak

laborantzatik bizi ziren eta bizi-molde frango dorpea zeramaten, zeren, tresna modernorik ez izanez, indarkako lan asko bazuten egiteko urte buru batetik bestera : ene aita-amak, holaxet higatu ziren eta hil. Dena den zortzi haur, zortziak mutikoak, hazi eta altxatu zituzten zerbait gisaz.

Gure haur mundua zen sort-herriko mendiak mugatzen zutena : mendiari gora joan eta urrunago ikusten genuen, baina halere gure haur mundua oso ttipia zen. Ez genuen irratirik, are gutiago telebistarik : herritarrak genituen gure irratia eta geure telebista.

Euskara zen gure komunikabidea eta beraz gure hizkuntza lehena eta bakarra. Jendeak, kabaleak, oihan-otarretako zuhaitz eta landareak, hots ikusi edo entzun gauzak izen-

datzeko nere lehen hitzak eta bakarrak izan dira euskarazkoak : horrela jendeak eta gauzak ikusten, entzuten eta hunkitzen nituenak oro euskararekin sartu zitzaizkidan barruraino eta hor, barruan, segitu zuten beren bizitza ; denek naute hazi, mamitu eta parte egin naizen bezalako hau.

Nahi-ta-ez, lau urtetan abiatu nintzen frantses eskolara joaten eta, hasian hasirik, nere estudio guziak egin behartu zaizkit frantses eskoletan, hamaika urteetarik hara Euskal herritik kanpo.

Laster, marrumaz eta aztaparka, euskara hasi zitzaidan barruan : honela euskarak bere bidea zilatu zuen nere gogo-bihotzetan eta hasi nintzen ikasi kantuak lagunekin kantatzen eta poematxo batzu idazten..."

# MANEX ERDOZAINZI-ETXART (1934-1984)

**Manex Erdozaintzi 1934 eko uztailaren 15 ean sortu zen Nafarroa Behereko Ibarla herrian.**

**Nekazal giro herri txiki eta euskaldun hartan iragan zuen bere haurtzaroa. Bere etxeokak laborariak ziren eta zortzi haurrak, zortziak mutikoak, aurrera eramateko gogor lan egin behar izan zuten.**

Euskaldun giro batean hazi zen Manex, euskara hizkuntza lehena eta bakarra zuelarik. Baina oso gaztetatik ikasketak guztiak frantsesez egin

kantu eta poemak eskuz kopiatzen zituen.

Hurrengo urteetan filosofiako ikasketak burutuko zituen Béziers eta

teologia ikasketak amaituta, Donapaleuko Frantxiskanoen komentura igorri zuten. Sei urte egon zen bertan lan pastoral handia



Manexen Ibarla Pekotxea sort-etxea

beharrean aurkitu zen, eta Euskal Herritik kanpo 11 urtetatik aurrera.

Bederatzi urterekin Donapaleura joan zen frantxiskano ikasketak egiteko eta handik atera eta Briveko ikastegian sei urte eman zituen, 1945 etik 1950 era ; bertan izugarri sufritu zuen bere sorterritik urrun egoiteaz.

Urte haietan euskararenganako eta bere herriarenganako maitasuna piztu zitzaion eta euskal kantu eta idazlanetarako interes bizia azaldu zuen. Esate baterako, 15 urte besterik ez zituela "Gernika" aldizkaria irakurtzen hasia zen eta bertako

Pabeko komentuetan, eta hauek amaiturik Pariseko Orsay izeneko komentura joko zuen Teologia ikastera. Erdozaintziren euskalzaletasuna errotuz joan zen denborarekin eta euskal kultura baten beharra ikusten hasi zen. 1956. urtean Arantzazuko frantxiskanoek JAKIN aldizkaria sortu zutelarik, hasieratik jarri zen Manex haiekin harremanetan, eta bera izan zen hasierako urte horietan (1959-1958) Iparraldetik artikulak igorri zituen idazle bakarrenetako bat.

23 urterekin apez ordenatua izan zen eta, hurrengo urtean Pariseko

eginez ; herri ugari ibili zituen predikari gisa eta Euskaldun Gazteriaren omonieraren laguntzailerere ere izan zen.

Lan pastoralaz gain euskal kulturaren buru belarri sartu zen. Euskal klasiakoak aztertzeari ekin zion, aldizkariak hurbildik jarraitzen zituen, EGAN eta EUZKO GOGOA bati-pat, eta euskaltzale askorekin jarri zen harremanetan gutunen bidez ; hauen artean dauzakagu esate baterako, Jon Etxaide, Koldo Mitxelena, Jokin Zaitegi, Aita Barandiaran, Luis Villasante, Juan San Martin... ea.

# URTE EMANKORRAK ETA ABERATSAK

1963ko Akitania Probintziako Frantxiskotarren kapituluan, probintziako idazkari izendatu zuten, eta gogor lan egin zuen kargu honetan bere asmoak aurrera eramateko: Manexek Ipar eta Hegoaldeko frantxiskotarrak batu egin nahi zituen, Euskal Herrian finkaturiko anaidi bat nahi zuen sortu Euskal Herriko mugak gaindituz eta ezabatuz.

Baina hurrengo urtean Parisera jo behar izan zuen psikologiako ikasketak burutzera eta urtebete eman zuen bertan. Ondoren, Okzitaniako Tolosako frantxiskotar gazteen arduradun izendatu zuten. 1966 tik 1972 ra iraun zuen kargu honetan, 1969 an Tolosako komentuko nagusi ere izendatu zutelarik.

1972 an, azkenik, beraien euskal anaidi bat sortzeko proiektua onartua izan zen (hiru anai ziren), eta hala eraiki zuten Domintxainen "Anaitasuna" deituriko anaidi tipia. Herrian erroturiko anaidi bat izango zen, Euskal Herrian erroturikoa, eta herritarren arazo guztiei irekia eta zabaldua egongo zena. Urte batzuek beranduago honela azalduko zuen Manexek zein zen bere fedearen oinarria:

*"Izpiritu kritikoa atzarri zitzaizkizun, ohartu nintzen mundu hau, gizarte hau, bere hartan hartuz, ez zela erakatsi zidaten bezain gaiztoa eta makurra! Haatik konturatu nintzen mundu huntan, gizarte huntan, zapalduak eta zapaltzaileak bazirela, jende pobreak eta aberatsak, jende baztertuak eta jende handikariak, jende langileak eta jende manatzailak! Eta nere problema larriena izan zen zein alderdi aukeratuko nuen? Zalantzarik gabe aukeratu nuen sortzeak emana zautan alderdia: jende langilearen alderdia, herri zapaldu honen alderdia. Konturatu ere nintzen Ebanjelioa Pobreen giza lurrean jaio zela eta Pobreen giza lurrean mintzairan hitzeratu. Nere fraide bizitza, kontzientzi hartze honekin hasi nuen ber pentsatzen eta berriro eraikitzen."* (1978. urtean Donostiako EUTG-n eginiko "Erljijsoso Bizitzaren Euskal Astea"n emandako hitzaldian).

Manexek hainbat lan eta kargu hartu zituen bere baitan; "Fededunak" kristau batasunaren dinamizatzaile izan zen, Etxarriko laborantza eskolan irakasle, psikoso-



Fraide andana elgarrekin, gogoeta egun batez Domintxineko etxearen atarian.

ziologia eta pedagogia arloan elkarte ugari eskatu zuten bere laguntza, herri askotan predikatuak ematen zituen, bai euskaraz bai erdaraz, Gau Eskolak ematen jardun zen Donibane Garazin eta Donapaleun...

1974 ko uztailean *Herri Honen Erraietan* poesi bilduma idatzi zuen, baina ez zen hau argitaratu izango 1985. urterarte.

1977 oso urte emankorra izan zuen eta gerora ezagunen eta zabalduen izango ziren poemak idatzi egin zituen: "Sinesten dut", "Hemengo elizari", "Nafarroari poema irekia", eta hogeit urtetan zehar idatzirikoa poesien bilduma bat ere argitaratu zuen ELKAREN eskutik *Hinki-Hanka* titulupean.

1978an 43 urte zituelarik Akitaniako frantxiskotarren Probintzial izendatu zuten. Kargu honek lan izugarria eskatzen zion eta oso maiz Euskal Herriko kanpo joan beharrean aurkitzen zen denbora gehiena Frantzia aldean pasatzen zuelarik, Parisen, Lyonen, Tolosan, Bordelen, Pabean...

Handik bi urtetara, Behe Nafarroako kultur egoera larriaz oharturik eta komunikabide eza konpondu nahian, "Association d'études et d'information en milieu rural" izeneko elkarte sortu zuen, eta urte horretan bertan HERRIZ-HERRI aldizkari

lokala sortu zuen. 1980 ko abuztuan irten zen lehen alea eta Manex izango zen bertako arduradun.

1981. urtean, Estatu Batuetan hilabete batez izan ondoren, azken urteetan idatzirikoa zenbait poesi bildu zituen *Bizitza Pilpirak* izeneko liburuxka batean (duela gutxi MAIA-TZEN eskutik argitaratu berri dena).

Esan bezala, oso lan erritmo gogorra zeraman Manexek. Bere Probintzial karguak lan handia eskatzen zion, eta Donapaleuko anaidiaren ardura eta hainbat aktibitate mantendu ahal izan bazituen ere, bidaiek, bilerek, kezkek eta arazoez biziki nekaturia zuten. Ez zuen hala ere bere lana utzi, eta hurrengo urtean MAIATZ aldizkaria sortu eta lehen ale hartan 1974 an idatzirikoa *Herri Honen Erraietan* argitaratu zuen. Urte berean ELKAREK *Gauaren atzekaldean* elaberria argitaratu zuen, bederatzi urte lehenago Manexek nobela labor gisa Beasaingo lehiaketa batetara bidali zuenaren moldaketa dena.

1983 ko apirillean Euskaltzaindiak haren lana eskertuz Euskaltzain urgazle izendatu zuen. Urtebete beranduago, 1984ko apirilaren 21 ean gaixotu zen Manex eta astebete beranduago Tolosako ospitalean hil egin zen 49 urte zituela.

# AZKEN OLERKIA

Jarraian datorrena Manex Erdozaintzik idatziriko azken poesia dugu, 1984 ko apirilaren 15 ean egina hain zuzen ere.

## Gure etsaiak

Urrunekoak eta hurbilekoak  
ondotik eta zeharka  
mugimendu ixilean  
harat-honat dabilta  
errabia kaldan  
zu begizatzen eta  
zu goaitatzen  
herio-minak jabetuak  
zure ondotik dabilta  
lurrera noiz  
bota ahalko zaituzten  
noiz  
errainak hautsi ahalko  
dizkitzuten...

Beren txakurrekin  
beren salatariekin  
zu lore bati xoratua zagozelarik  
itsasoko aire gazitua milikatuz  
bizitzari oihuka zohazelarik  
herioa golkoan  
ondartza bustian  
Zure ondotik dabilta  
zuk uste ez duzunean  
zuk deus ez dakizunean  
Askatasunaren gutizia baizik...

Harat-honat dabilta  
noiz beren armaren tiroan  
erailko zaituzten...  
Ibilki dira beren txakurrekin beren  
salatariekin  
zuk uste ez duzunean  
zuk deus ez dakizunean  
Maitasunaren gustua baizik...

Etxeko mahai aintzinean leherrina  
trototzen zarelarik... uf !  
eta larunbat-igandetan eta merkatu  
egunetan  
eta beste egunetan  
zeure lagunekin pinterdiño bat  
alaiki edaten ari zarelarik  
hor gaindi dabilta  
mugimendu ixiletan  
beren barrandariekin  
zure aurpegia miatzen  
urrunetik eta hurbiletik  
zure gorputz-enborra istudiatzen  
gauaz nola egunaz  
beren esku-mutilekin  
herioa golkoan  
zure itzulietatik dabilta  
zure irri karkailak eta zure kantuak  
eta zure otoitzak  
eskarniatzen...

Izan dadin gaua  
izan dadin eguna  
zuk uste ez duzunean  
lur hotzean hedailo botako  
zaituzte...  
zuk  
bizia baizik ez dakizularik !

*Donapaleun, 1984 ko apirilaren  
15 ean  
Agurtzane*

Manex Eukaristia ospatzen serora talde batekin



## MANEX ERDOZAINTZI FEDEDUN OLERKARIA

Joan den egunean Manex zena-  
ren hamargarren urteburuaren  
karietara Baionan egin den bil-  
kuran norbaitek erran du ez  
genuela euskal idazlea eta olerka-  
ria gogoratzean haren fedea  
ahantzi behar.

Nolaz ez ? Baina nola Mirande  
eta Iratzeder edo Aresti olerka-  
rien artean baitira desberdinta-  
sun handiak, Jean Hiriart-  
Urruty eta Manex Erdozaintzi  
fededunen artean ere, Jondoni  
Petri eta Jondoni Pauloren  
artean bezala izan dira teologia  
desberdinak.

Gai horrek ordea liburu bat  
hartzeko luke.

Anartean hona keinu bat bezala  
Manexek "Fededunak" deitu  
elkarteari igorri gutun bat.

*Jaunak,*

*Eskatua izan zautan bezala, onar-  
tzen dut "egoile" edo "permanent"  
bezala lan egitea "FEDEDUNAK"  
batasunaren zerbitzuko.*

*UZTARITZE-n joan den maiatzean  
egin biltzarre nagusian erabili sola-  
sak eta hartu erabakiak gogoan izan-  
ez, huna nola, mementoan, ikusten  
dutan neure eginkizuna :*

*1° FEDEDUNAK batasunekoek  
elgarrekin dituzten lokarriak tinkat-  
tu;*

*2° Hego eta Ipar aldeko girixtino  
taldetxoeren berriak ezagutu, elgarri  
helarazi, hartu-emanak errextu eta  
finkatu ;*

*3° Mogimenduaren beharrorduek  
senditu, formulatu ahal den neur-  
rian eta beharrordu hoieri ihardo-  
kitzeko ala sezone, ala gogoeta  
bide, ala bestelako laguntza zerbait  
organizatu eta jakin-tresnak bila-  
tu...;*

*4° Euskal Herriko gertakari inpor-  
tanteeri aski goiz elgarrekin ohar-  
tzen lagundu gure pozitionea  
mamitzeko eta agertzeko behar den  
mementoan eta ez berantegi askotan  
gertatzen den bezala ;*

*5° Agerkaritxo bat ateratzea era-  
bakitzen balin bada, hartarako lan-  
kideak bilatu, gaiak bildu eta hitzar-  
tu epean argitaratu.*

*Onar-kitzue neure bihotzeko sendi-  
mendu goxoenak.*

*Manex Erdozaincy*

# MANEX ERDOZAINTZIREN IDAZLANAK

## 1. IDAZLAN LITERARIOAK :

### a) Argitaratu lanak :

*Herri Honen Erraietan*, 1974an idatziriko poesiak dira.

*Hinki-Hanka*, 1978. urtean ELKAREk argitaratu poesi bilduma da. 1958-1976 urteen bitartean idatzi zituen poemak dira, Donapaleun, Domintxainen, Tolosan, Parisen, Britainian...



Domintxineko etxea : Raffortoenia. Manex eta Xalbat hor bizi ziren 10 urtez ; frantziskotar bizitze molde berri bat.

*Gauaren atzekaldean*, 1982 an ELKAREN eskutik argitaratu elaberria da. Dena den, orain ezagutzen dugun hau, Manexek aurretik idatzi zuen zenbait bertsioren moldaketaren emaitza da. 1973an *Ilargi umea* izeneko nobela laburra idatzi zuen (*Izerdizko gunetan* dugu honen beste bertsiio edo moldaketa baten izenburua) eta Beasaingo lehiaketa batetara bidali zuen.

### b) Argitaratu gabeko lanak :

*Behin eta berriro*, 1977ko Donostiako ipui lehiaketa-ral bidalitako ipuia da. Prosaz idatzitako lan bakarra da.

Gainontzeko guztia poesia da. 1949. urtetik (urte honetakoa baita Manexek idatziriko lehen olerkia) bere heriotzerarte, hainbat eta hainbat poesi idatzi zituen.

Batzuk aldizkarietan argitaratuak izan ziren, hala nola GAZTEN, ELGAREN, OLERTIn, HERRIAN...

Beste batzuk bilduma antzeko batzuetan bildu zituen Erdozaintzik berak eta ez dakigu oraindik autoreak argitalexeren batetara bidaltzeko asmoa zeukan edo nonbai-

ten aurkeztu zituen. Hiru poesi multzo ditu :

*Bizitza Pilpirak*, 1981 eko abuztuan Domintxainen eginiko poesi bilduma da. 1976, 1979 eta 1980. urteetan idatziriko hamabi poesi dira, eta hauetako batzuk MAIATZ aldizkarian argitaratuak izan diren lehenago.

*Trein honen drangadan*, 1983. urtean Euskadi-Paris arteko tren bidai batetan zehar idatziriko poesiak dira.

*Nafarroari poema irekia*, 1977 an idatziriko hamabi poesiz osatutako olerki luzea.

Beste poesi batzuk kantatuak ere izan dira eta zabal-kunde handia izan dute, Ipar Euskal Herrian batipat ; ezagunenak ditugu esate baterako "Sinesten dut" eta "Hemengo elizari", 1977 an idatziak, eta Peio eta Pantxoak kantatu eta ezagutza eman dituztenak.

Guzti hauez gain, badago azkenik poesi multzo handi bat, poesi solteak, ezezagunak, gutxi batzuk ezik aldizkarietara edo lehiaketetara sekula igorri ez zituenak. Eskuizkribuak dira gehienak eta asko datarik gabe-koak.

## 2. ARTIKULU ETA SAIAKERAK :

Argitaratu diren eta ez diren artiku-ku, saiakera eta azterketa ugari idatzi zituen. Gai desberdinetan sailka daitezke :

- Erljioa
- Psikologia
- Pedagogia
- Euskal kultura

- Euskal soziologia
- Abertzaletasuna
- Bestelakoak

Bibliografia hau osatu eta aztertu beharra dago oraindik. Zenbait artiku-ku aipatuko ditugu soilik, 1965 eta 1979. urteren bitartean idatziak eta aldizkari ezberdinetan argitaratu direnak :

"Bertsolarisme en Pays Basque", Donapaleun 1965ko otsailaren 4 ean idatzia.

"Txomin Agirre 'Ondarrak'", Donapaleun, 1965eko maiatzaren 1 ean idatzia.

"Euskal irakurgaiak", Parisen 1966ko otsailaren 6 an idatzia.

"Ipar Euskal Herria", 1970ko otsailaren 19 an idatzia.

"La chanson basque contemporaine : phénomène social", 1979 ko urtarrilean. Euskal kanta berriari buruzko azterketa.

# IDAZLANAK (E. hasia)

## 3. EGUNKARI PERTSONALAK :

1950 tik 1984ra bitarteko egunkari eta agenda ugari idatziak ditu Manexek. Urtez-urte eta egunez-egun bere bizitzaren berri ematen digu liburuxka hauetan ; bere joan-etorri eta zeregin guztiak idatzi egiten zituen ia bere bizitza osoa birreraike genezakelarik.

Baina zereginak eta betebeharrak ez ezik, Erdozaintzik bere gogoetak idazten zituen, bere pentsamenduak, planak, kezkek, bai eta momentuan bururatutako poesiak ere (hain lirikotasun handiz azaltzen ditu askotan bere gogoetak, zaila dela bereiztea non bukatzen den kontaketa eta non hasten den poesia). Horregatik, egunkari hauek interes biografikoa izateaz gain, idazlearen barne munduaren berri ematen digute, bere sinismenen eta sentimenduen berri.

## 4. ESKUTITZAK :

Mota guzitako gutunak daude bildurik, oraidik sailkatu eta aztertu gabe daudenak. Manexek jasotakoak ez ezik, igorritako gutunak ere dauzkagu, guztiak bere egunkari eta papeletan idatzi egiten bait zituen bidali aurretik.

Mota guzitako gutunak daude : senideei eta lagunei bidaliak, euskaltzale eta elkarteekin hartuemanak, literatur munduarekin, eta oro har, euskal mundua eta kulturarekin zeri-sirik duten talde, aldizkari eta argitaletxeekin...

*Agurtzane*

## Lekukotasun bat

**Manex**, laborari etxetik jalgitzen zen, eta beti gorde izan zuen lurraren alderateko lotura, atxikimendua. Eta bere lurra, euskal lurra zen ; laborari eta langileena ; Euskal Herria bere euskararekin, bere historiarekin, bere kulturarekin : gizartea, ekonomia, politikaren mogimenduetan egiten den Euskal Herria.

**Manex**, jende xeheri hurbil egon zen beti. Kultura handikoa zelarik eta kargu handien erantzukizuna ukanik ere, etzuen sekula saldu bere lurra, bere etxaldea, bere jatorria. Akitaniako Frantziskanoen Probintzial egon zen eta psikosoziozia sailean talde-dinamika landu zuen.

**Manexi** Euskal Herritik kanpo bizitza behartu bazitzaion bere ikasketengatik eta erantzukizunengatik, ahal bezainbat Euskal Herriratzea zuen bere tirria guzia. Oso gertutik segitzen zituen gure herriaren gorabeherak, ametsak eta etsipenak, borrokak eta bestak, bozkarioak eta penak. Euskal Herritik kanpo arrotz senditzen zuen bere burua. Bere poema eta idazkietan herri-mina nunahi erakusten du.

**Manex**, deneri interesatzen zen. Euskal aldizkari ainitz hartzen zuen, Euskal Herri guzikoak... literatura, teologia, mistika, filosofia, politika (ofiziala eta bestea)... erran nahi dut bere ikuspegia etzela mugatzen iparraldeari, baina Euskal Herria bere osotasunean besarkatzen zuela. Bestalde euskal liburu zaharren biltzen ere egin zuen lan eta bere liburutegian dira.

**Manex** fraideia zen, frantziskanoa. Eta kristau bezala bere arrangura eta kezka haundia zen, ikusiz gure herriko elizak etziola beharbada gure herriari eta militantziari ekartzen behar zuen edo igurikatzen ahal zuen argibidea, ezagutza, eta sustengua. Eliza berri bati buruz ari zen, eta bere erantzukizunetan ildo horri jarraiki zitzaion : petik, oinarritik, eraikitzen den Eliza batetan sinesten zuen, Nazaretheko Jesusen urratsari jarraikiz.

**Manex** etzen kalakarietarik ; herabe aire bat bazuen ; funtsezko gauzeri interesatzen zen. Besteen erraneri kasu egiten bazakien ; errespetu handiko gizona agertzen zen besteen alderat ; azpikeria eta saldukeria gaitzitzen zitzaion.

Gizon alaia zen Manex, langilea, sakona, gozoa, zuzena.

Laburbilduz, bi leialtasun bizi izan dituela erraiten ahal dugu : leial izan da bere jatorriari, bere lurrari, Euskal Herriari bere zabalera osoan eta bere lan-alor eta mogimendu guzietan ; leial izan da ere bere frantziskotar biziari, Ebanjelioa bizitzeari, gizon-emazteen - eta ttipienen - nigar eta bozkarioekin bat egiten duen Elizari eta gizaritari.

*"Bizitza pilpirak" MAIATZ  
aldizkariak argitaratu berri duen  
Manexen liburutik*

## ERREPIKAK

1

*Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak  
Herri zapaldu honen intziri-nigarrak :  
Taigabe darماغun burruka gogorak  
Dakarzi berarekin hazi emankorrek...*

2

*Nik ez dut bizi nahi besoak mozturik  
Bi zangoak herrestan bizkarra hautsirik :  
Izar bati begira lagunak eginik  
Esperantza kantatzen ez naiz asperturik !*

3

*Nola oihan mendiak berdin itsasoak  
Musika xoragarri diraden beteak  
Lurtatze berri baten indarki bultzadak  
Daldaratuko ditu zeruko izarrak !*

4

*Mespretxu zapalkuntza kalapita hauzi  
Herri ukatu baten morroi marka guzi  
Dator Askatasuna hodeiak doatzi  
Ager gaiten dantzara bihar edo etzi !*

# OMENALDI KARI

Beste omenaldi bat Mañex Erdozaintzi gaurko hau.

Zuen artean nago, ni haren iloba, zerbait lekukotasun, ene hein apalean ekarri beharrez bere familia hain maite zuen otto Mañexez... Eskertzen zaituztet ere bihotzaren erditik hemen bilduak zaretzen guziak atxikimenduz, duela 5 urte utzi gintuen, frantziskotar olerkariaren oroitzapena gogo-bihotzean.

Bai, zinez maitemindua zen familia, gureaz bezenbat bere sortetxe Ibarlakoaz... Biziko harat-hunatek uzten zioten deskantsu bekanetan etortzen zitzaigun, ardurenean eguerdiko eta arratsaldea egoiten. Atsegin zi-

ere hain bihotzeko zuen Donapaleuko anaidiaz eta anaietaz. Erljio eremuan sartzen zelarik beti berrikuntzaz arranguratua agertzen zen... Askotan aitarekin lerratzen ziren haur denborako solasetara, maiz gogoratzen zitzaizkien etxeok, ama bereziki, aita ere eta Pekotzeko familiaren bizia agertua zitzaigun ele eta irrien artean. Lehengoan zaudelarik usu oroitzen ziren ere gazteegi zendu ziren bi anaietaz : Ellande eta Piarranoz, hauen hutsa ezin betea zitzaien...

Erran beharrez nago ere zerbait agertzen ez dena oseba Mañexen idazlanetan : izigarri laket zuen *irri egitea eta arraileria*, zinez jostagina zen, zer irri

gaiten zukeen luma eskuan ! Biziki dolu zuen musika ez jakitea, idazten zituen kantuentzat nahiko zukeen doinua berak asmatu. Antzerkiak ere azkarki hunkitzen zuen, ezagutu dutenek badakite zer loria zuen gure antzerkilariei beha. Antzerki egiteko xede zerbait zukan kaskoan eta bere lehen omenaldian bozkario handienarekin gozatuko zukeen "herri honen erraetan" poema luzea antzerki moduan ikusteaz... Bertsulariak nola ez aipa, ongi ezagutzen zituen iparraldekoak, miresten eta usu gorapatzen... Azken aldikotz etxean izan zelarik badakit Oztibarreko bertsulariez arizan ginela, bereziki, zinez gutiegi jendartera agertu

ziren Hozta Iparreko Auguste eta Arroze Haizpuruz, nahiko zukeen jakin zer nolakoak ziratekeen hauen bertsuak... Berriz ere ausartuko naiz erraiera familiarren lokarriak behar beharrezko zituela : norabait abian zelarik aldikal kartaño bat igortzen zaigun gure aldera zukan atxikimenduen agerri.

Bazitakeen ene gaurko mintzaldian zer erran... Egiaz, frango lekuko lausoa duzue hautatu euskaltzale handi hontaz mintzateko, baina den harekin egon behar zenbait aldiz !



Erdozaintzi familia ezteiez

tziaion bai egiazki familiarekin goxatzea. Bere anaia Anbroxi ene aitarekin arras ontsa jiten ziren (hots, beste anaiei ere berdin berdina atxikia zela erran dezaket duda izpirik gabe). Elgarrekin zauden bisita denbora guzia, bereixteko tenorea beti goizegi heldu zitzaien...

Zer ote ziren gutarteko solasak ?

Familia eta familiakoak lehenik bixtan dena, herriko jendeak ere, sasoineko lanak... harrigarri zen gaztarotik haste noiz nahi herritik urrundua zen gizon horrek zukan gutizia hemengo biziarren gora beheretaz... bere lan eta bidaietaz ere mintzaten zitzaigun eta

partidak egiten genituen harekin ! Zerbait kondatzen zuelarik izigarri xeheki egiten zuen, eta norbaitek azaltzen (esplicitatzen) ziolarik zerbait ez zuen barkatzen arrunt konprenitu arte... Jende xehea eta langilea maite zuen gain gainetik ! Xumetasuna eder zitzaion denetan ; jendetan bezala gauzetan, apainduretan eta biziko urratsetan... Bere idatzi eta idaztekoetaz ere ariko zen gongbresak edo galdeek harat zaramatelarik ; behin, bapatean, hori erran zidan : "Harrigarri duxu bestela nola den jendea, iduri ziaxoxu liburu bat egunetik biharamunera, hola egiten dela !" Nork daki zenbat denbora ira-

Bi hitz bere azken garaietaz. Honarat hurbiltzeko asmotan zagon... Hain maite zuen Oztibarre xokoa, Amikuze eta Euskal Herrian lan egiteko gogoia zukan ; beste gauza askoren artean suharki segitzen zituen Haize Berri Kultur Etxe berriaren lehen urratsak eta hango ikastaldietako irakasle lehenetarik izan beharra zen... Ondikotz, bapatean heriotzeak zaigun lurraren, herri honen erraieran sar arazi, berak idatzi poema luzea, ixil-ixila, hedatzen zaigula mugagabeko askatasunaren eremuetan barna...